


VILLA LOLITANEA
D MAILA**PARADA 36**

Luis Elizalde, 1911

Deskribapena

Oinplano errektangularra dauka, eta profilak erdisotoa, beheko solairua, lehen solairua eta isurki biko estalkipeko bigarren solairua hartzen ditu. Horma piko biak kopete-erdi eran dauzka eta alde nabarmena dago harrizko basamentuaren eta perimetro osoan bilbaduraz egina den goiko atalaren artean. Erdi Aroko eraikuntzaren revivala du erreferentzia, XIX. mendean udaldiko bizitokietarako atzera landu baitzuten hori. Partzelan duen kokapena balio interesgarria da, aldameneko etxeen lerrokadura berari segitzen baitio, eta partzela berdearen zati handiena trenbideranzko jaitsiera arin batean baitauka. Horrelako zenbait partzelak bat egiten dutela, landaretza multzo aipagarria eratu da inguruan.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: kalerako fatxadan erantsitako eraikina.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadako harria, bilbadurak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.